



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BATZORDEAN PUNTU BAKAR BAT ALDATU BARIK ONARTU DABE GIZARTE- EKINTZA SAILAREN AURREKONTUA

- **Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek oposizioaren 92 zuzenketa-eske parzialak baztertu ditue.**
- **Aldundiaren sailetarako dagozan 1.358,8 milioi euroetatik, Gizarte Ekintzak % 43 kudeatuko dau.**
- **2021eko aurrekontuen eztabaidak bihar jarraituko dau, Ekonomia Sustapen, Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko sailen kontuen eztabaideagaz.**

(Bilbon, 2021eko zezeilaren 8an). 2021eko Bizkaiko Aurrekontuen zuzenketa-eske parzialak eztabaidatzeko bigarren jardunaldia egin da gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Batzarretako taldeek 92 zuzenketa-eske bideratu ditue Ogasun eta Finantza Batzordera, Gizarte Ekintza Sailaren kontuen alderdiren bat aldatzeko asmoz. Atzo gertatu zan moduan, Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota ditue oposizioaren (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PPB) zuzenketa-eske guztiak.

Oposizioz hiru taldeek aurkeztutako zuzenketa-eske askotan, lurraldeak igaz bizi izan eban, eta Sergio Murillok zuzentzen dauen taldearen jarduketaren hainbat ildo markauko dituan pandemiaren egoera aztertu da. Zainketa espezializatuagorako trantsizio soziosanitarioak 10,2 milioi euro mobilizauko ditu, eta horreen artean Etxetic zentroen sarea nabarmentzen da. Ardatz horretan sartzen dira, baita be, Urduliz torrean Nagusi Intelligence Center edegiteko partidak edo arlo soziosanitarioko zaintzaileak prestatuko plana, Foru Gobernu babesten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) adierazo dabenez.

Ogasun eta Finantzetako Batzordean, oposizioz hiru taldeek saileko ikuskaritza eta kontrol taldea indartzea eskatu dabe. Modu berean, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia bat etorri dira hainbat gizarte-zerbitzutako plazak handitzeko eta Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundeko (GUFÉ) beharginen kopurua gehitzeko ahalegina egin behar dala esatean.

Batzarretako Talde Berezia-PPB taldeak 22 zuzenketa-eske defendidu ditu. Besteak beste, Bizkaiko irisgarritasuneko puntu baltzen azterketa bat egitea eskatu dabe, eta Ermuan eguneko zentro bat eta Trapagan adinekoentzako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

zentro bat eregitea. Partida gehiago eskatu ditue Bizkaiko zentroak “osasunaren ikuspegitik” hobetzeko (3 milioi euro), eguneko zentroetarako (600.000 euro), pandemiaren ondorioz egoitzei baliabideak gehitzeko (350.000) eta arreta goiztiarra hobetzeko (600.000). Azkenik, partida barriak proponidu ditue hirugarren sektoreko alkarteentzat, Fekoorentzat, Avifesentzat eta zaintzaileentzako atsedenerako programa lantzen daben erakundeentzat.

Beste alde batetik, aurkeztu dituan 49 zuzenketa-eskeen artean Elkarrekin Bizkaiak Getxoko belaunaldien arteko zentrorako eta Nagusi Intelligence Centerrerako partidak kentzea eta proiektu barri batzuk egitea proponidu dau, gizarte-politiken eta adinbakoenganako politiken eraginkortasuna neurtzeko azterlan bana egitea, eta baita zainketen eta eredu horren aldaketaren ganeko partaidetzazko alkarrizketa-sare bat be, beste batzuen artean. Talde moreak Egoitza Harrerako unidateko lantaldea handitzea be eskatu dau, eta gauza bera GUFEn, azken horretan 12,6 milioiko aparteko ekarpenagaz. Aldi berean, Etxetic-en aurrekontua murriztea eskatu dabe, eredu hori zabaldu aurretik “ebaluazinoa egin behar dalako”. Azkenik, ezintasunaren balorazinoa eta ebaluazinoa “publiko egitea” eskatu dabe, zerbitzuan behargin gehiago sartuz.

Urritasunaren arloan, talde moreak plaza publiko gehiago eskatu ditu, eta baita familia-ingurunean zaintzeko baliabide gehiago be (12 milioi). Horrez gain laguntzaile pertsonalaren proiektua (6 milioi) eta arnas programa handitzea eskatu dau. Modu berean, herritarren alegazinoa aurkeztu eban Hirukide Bizkaiari emoten jakon diru-laguntzea berreskuratzea eskatu dabe, eta Down Syndromea alkartearentzat partida berezi bat egokitzea, erakunde horrek kanpoko beste alegazino batean eskatu eban moduan. EH Bilduk be bat egin dau horregaz, beste zuzenketa-eske baten bitartez. Talde moreak, ganera, eten digitalari aurre egiteko diru-laguntzen programa bat egitea eskatu dau.

EH Bilduk 21 zuzenketa-eske parzial egin deutzaz Gizarte Ekintzako aurrekontuari. Koalizino abertzaleak gizarte-larrialdietarako zerbitzuak birmoldatzea eta lurraldeko egoitza-zentroetan eta GUFEn plaza publiko gehiago sortzea eskatu dau, Gallartako egoitza ixtea saihestuz eta behargin gehiago sartuz, LAB sindikatuak be herritarren alegazino batean egiten eban moduan. Modu berean, GUFeko zentroak “modulu txikiagoetara” egokitzearen alde egin dabe, eta baita “pribatizauta” dagozan zerbitzuen “publikazinoaren” alde be. Azken horreen artean Balorazinatorako eta Orientazinatorako zerbitzuak dagoz. Koalizino abertzaleak zaintzaileak prestetako programa bat eskatu dau.

Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek Gizarte Ekintzako aurrekontuko testuaren eukia defendidu dabe. Foru Aldundi guztien artetik gastu gehien izango dauen saila izango da, 585 milioi euro gastauko ditualako, 2020an baino 20,1 milioi gehiago. Osoko bilkuran behin betiko onartu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ostean, Gizarte Ekintza Sailak Foru Aldundian erabilgarri dagon zenbatekoaren % 43 kudeatuko dau.

SAIOAK

Eguaztenean, zezeilaren 10ean, lehen hitzordua 09:30ean izango da, Ekonomia Sustapenaren 110 zuzenketa-eskeen ganean berba egiteko. 12:30ean, Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko 43 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko txandea izango da. Eguenean, zezeilaren 11n, saioa, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontua aldatzeko erregistrau diran 66 zuzenketa-eskeetan zentrauko da, 9:30ean. Eta hiru ordu geroago (12:30ean), Herri Administrazio eta Erakunde Harremanen 78 zuzenketa-eskeak aztertze txandea iritsiko da. Barikuan, zezeilaren 12an, Bizkaiko Batzarrek saio bat programau dabe 09:30ean, Garraio eta Mugikortasun saileko 28 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko. Eta astelehenean, zezeilaren 15ean, zuzenketa-eske parzialen eztabaidea Ogasun eta Finantzetako sailagaz bukatuko da. Saio horretan 27 zuzenketa-eske bozkatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBAN SIN RETOQUES EN COMISIÓN EL PRESUPUESTO DE ACCIÓN SOCIAL

- **Los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos rechazan las 92 enmiendas parciales de la oposición.**
- **Del total de 1.358,8 millones de euros del disponible departamental de la Diputación, Acción Social gestionará el 43%.**
- **El debate de los Presupuestos de 2021 proseguirá mañana con el debate de las cuentas de los departamentos de Promoción Económica, e Infraestructuras y Desarrollo Territorial.**

(Bilbao, a 9 de febrero de 2021). Hoy se ha celebrado en las Juntas Generales de Bizkaia la segunda jornada de debate de las enmiendas parciales a los Presupuestos de Bizkaia de 2021. Los grupos junteros han trasladado a la Comisión de Hacienda y Finanzas un total de 92 enmiendas con la intención de modificar algún aspecto de las cuentas del departamento de Acción Social. Como ya sucediera en la jornada de ayer, los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han desestimado todas las enmiendas de la oposición (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y grupo Mixto-PPB).

En muchas de las enmiendas presentadas por los tres grupos de la oposición coleaba la situación de la pandemia que ha vivido el territorio durante el año pasado y que marcará algunas líneas de actuación del equipo que dirige Sergio Murillo. La transición sociosanitaria hacia un modelo de cuidados más especializado movilizará 10,2 millones de euros, y entre ellas destaca la red de centros Etxetic. También se incluyen en este eje partidas para la apertura del Nagusi Intelligence Center en la Torre Urduliz o el plan de formación de personas cuidadoras del ámbito sociosanitario, según han apuntado los grupos que apoyan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos).

En la Comisión de Hacienda y Finanzas celebrada hoy, los tres grupos de la oposición han pedido un refuerzo de la plantilla de inspección y control del departamento. A su vez, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han coincidido también en incrementar los esfuerzos por aumentar las plazas de diversos servicios sociales e incrementar la plantilla del Instituto Foral de Asistencia Foral (IFAS).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El grupo juntero Mixto-PPB ha defendido un total de 22 enmiendas. Entre ellas, han pedido la elaboración de un estudio de puntos negros de accesibilidad de Bizkaia, y la construcción de un centro de día en Ermua y de un centro de mayores en Trapagaran. Han pedido más partidas para la “sanitarización” de los centros de Bizkaia (3 millones de euros), para los centros de Día (600.000 euros) y para añadir recursos a la residencias por la pandemia (350.000) y mejorar la atención temprana (600.000). Por último, han propuesto también nuevas partidas para las asociaciones del Tercer Sector, Fekoor, Avifes, las organizaciones que trabajan el programa de respiro y las dotaciones para personas cuidadoras.

Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha planteado, entre sus 49 enmiendas, la eliminación de las partidas para el Centro Intergeneracional de Getxo y el Nagusi Intelligence Center y algunos proyectos nuevos como la elaboración de sendos estudios para medir la eficacia de la políticas sociales y las políticas respecto al menor, así como una red de diálogo participativo sobre los cuidados y el cambio de este modelo. El grupo morado ha pedido también un incremento de plantilla en la Unidad de Acogimiento Residencial, y en el IFAS, en este último caso con una aportación extra de 12,6 millones, al tiempo que solicitaban la reducción del presupuesto de Etxetic, ya que antes de desplegar este modelo “debe pasar por una evaluación”. Por último, han pedido “hacer pública” la valoración y evaluación de la discapacidad, incorporando más personal al servicio.

En el terreno de la discapacidad, el grupo morado ha pedido más plazas públicas, y más recursos para el cuidado en el entorno familiar (12 millones), así como ampliar el proyecto de asistente personal (6 millones) y el programa respiro. De igual forma, han solicitado recuperar la subvención a Hirukide Bizkaia que presentó una alegación ciudadana, e incorporar una partida especial para la asociación Síndrome de Down, tal y como esta entidad solicitó en otra alegación externa, a lo que se ha sumado EH Bildu con otra enmienda. El grupo morado ha pedido, asimismo, la elaboración de un programa de subvenciones para la lucha contra la brecha digital.

EH Bildu ha concretado sus correcciones al presupuesto de Acción Social en 21 enmiendas parciales. La coalición abertzale ha pedido la remodelación de los servicios de emergencias sociales y la creación de más plazas públicas en los centros residenciales del territorio y en el IFAS, evitando el cierre de la residencia de Gallarta e incorporando más personal, tal y como hacía también el sindicato LAB en una alegación ciudadana. Asimismo, han apostado por adaptar los centros del IFAS “a módulos más pequeños” y también por la “publicación” de servicios que “están privatizados” como el de Valoración y Orientación. La coalición abertzale ha solicitado un programa formativo para personas cuidadoras.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han defendido el contenido del texto presupuestario de Acción Social, departamento que manejará el mayor volumen de gasto de la Diputación con 585 millones de euros, lo que presenta 20,1 millones más respecto al de 2020. Tras su aprobación definitiva en pleno, el departamento de Acción Social vendría a gestionar el 43% del disponible de la Diputación.

PRÓXIMAS COMISIONES

Mañana **miércoles, día 10**, la primera sesión de la comisión de Hacienda y Finanzas arrancará a las 09.30 h. para tratar las 111 enmiendas del presupuesto de Promoción Económica. A las 12.30 h., turno para debatir las 44 de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. El **jueves 11**, la sesión se centrará en debatir las 65 enmiendas registradas para modificar el presupuesto del departamento de Euskera, Cultura y Deporte a las 9:30. Y tres horas más tarde (12.30) será el turno para tratar las 79 enmiendas de Administración Pública y Relaciones Institucionales. El **viernes 12**, la Cámara vizcaína ha programado una sesión, a las 9.30, para debatir las 28 enmiendas de Transportes y Movilidad. Y el **lunes 15**, el debate de las enmiendas parciales concluirá con el presupuesto de Hacienda y Finanzas, en la que se votarán 27 enmiendas parciales, y otras 26 al texto Articulado.